

239. zk.

Bigarren aroa

Urriak 15
2014

Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

Elkarrizketa

Nerabeei laguntzeko programa antolatu du Udalak



Gaztea

Berrikuntza ugari aurtengo Sport Jam-en



Eskola Kirola: Lehen urratsak kirolaren munduan

- 4 Inkesta **Aurrekontu parte-hartzaileak**
- 6 Berria **Mintzalaguna programa**
- 7 Erreportajea **Sagarra biltzeko sasoia Olan**
- 8 Kirolak. **Artaleku eta Azken Portu:**
bi kiroldegi, aukera zabala
- 10 Haurren Leihoa. **Belaskoenea HH**
- 11 Gurasoentzat. **Beldurra**
- 12 Gazteen Lanak. **Toki Alai BHI**
- 14 Gazte infor

**Jaso ezazu
IRUNERO etxean !!**

Informazioa, 6. orrialdean

 **BAINU**



Aldatu zure bainuontzia
dutxa batengatik

Guztia 2 egunetan!

Eska ezazu aurrekontua

IRUNERO PROMOZIOA

aipatuz eta eskuratu opari bat

IRUN

Uranzu, 9
943 615 184
687 572 920

DONOSTIA

Zarautz
hiritik, 86
943 561 652
bainu.irun@gmail.com

Mingarri



Yurre Ugarte

Haize-hegoa bezain saihetsezin iritsi da "Lasa eta Zabala" pantaila handira, Donostiako Zinemaldian estreinatu ostean. Filmaren kartelak Saul Bass diseinatzaile grafikoak film ezagun anitzetarako (*Vertigo*, *Psicosis*, *West side story* eta abar luzea) egindako kartelen eragin zuzena dauka. Hain zuzen, "Lasa eta Zabala"ren kartela lehendabizikoz ikusi nuenean, "Erailketa baten anatomia" (*Anatomy of a murder*, Otto Preminger 1959) deritzon filmarena ekarri zidan gogora. Edo agian, automatikoki lotu nuen hemengo filma aipatutako filmaren izenburua-rekin.

Elkarren artean zerikusirik ez daukaten bi film dira, bai; hala ere, *Erailketa batzuen anatomia* izan liteke "Lasa eta Zabala" filmaren azpititulu: haserako kredituetako tituluetatik bete-betean kolpatzen baikaitu iraganean gertatu ziren bai hilketen bai

epaiketaren berreraikuntzak. Filmaren zuzendariak berak, Pablo Malok, esan, esan du zinemaz aritzeko irrikan dagoela, politikaz hitz egiten aritu beharrean. Baina filmaren edukiak gainezka egiten digu/dio, eta, hemen inguruotan behintzat, zaila suertatzen da filmaren azterketa soilik zinematografikoa. Iraganeko gertakizun saihetsezinen kontakizuna baita, azkenean pantaila handian dagoena. (Kasik) fikzio izpirik ez duen dokumentuaren garrantzia dauka. Ez gehiago, ez gutxiago. Horrelako kasuak berriro gerta ez daitezkeen balioko duen galdeginenez genezake inozoki... Hain muturreko kasuak, agian, nekez errepika daitezke. Ordea, torturaren aurkako salaketek ez dute etenik, ez eta filma zinemaldian ematen ari zirenean ere... Hau da, torturatuzaileen inpunitateak bere horretan darrai gaur egun. Beraz, bai, segitu beharko da kontaktzen iraganeko zein egungo gertakari oro, mingarriak eta garratzak izan arren; preseski mingarri eta garratz direlako behar ditugu kanporatu eta partekatu. Inspirazio iturri izan daitezkeen makina bat pasarte, istorio eta gertakizun bizi izan dituzte, bai alde batean zeudenek, bai beste aldean zeudenek eta bai erdi-erdian zeudenek ere, guztiak historiari ikuspuntu ezberdin edo argigarri bat gehituko dion kontakizunaren zain.

"Lasa eta Zabala" ikusi eta izozki aringarri bat irentsi ondoren, haize-hegoak ekarri digun film-filma daukagu hostoen artean: "Loreak", hauek ere ezinbestekoak.

Irun atzo Irun gaur

Kale Nagusia atzo



IUA: 38446

IRUN. — Calle Mayor.

Hiriaren arteria nagusia izandako kale honek, Luis de Urantzuk dioenez, Kalegoi zuen izena; Kalebe, aldiz, San Juan Harria plazatik elizara zihoana. Izan ere, plazatik behera herria bide nagusitan banatzen zen, elizara eta Behobira, errege bideari jarraiki. Gorantz zihoana bakarra izanik, errege bide bera; hau da, Irungo irtenbide edo sarbide nagusia, "Calle Mayor" edo Nagusia bilakatu zen Kalegoi hura, XIX. mendean.

1931n, Gobernazio Batzordeak proposatuta, Francisco Bellido izena jarri zitzaion. Tolosan jaioa 1880an, oso gazte zela politikan murgildu zen. 1901ean Irungo "La Frontera" aldizkaria sortu zuen. Urtebete geroago Zentro Errepublikarraren sorreran parte hartu zuen, Karrika Nagusian kokaturik zegoena, eta horregatik dedikatu zitzaion kalea. 1909an Irungo Udaleko zinegotzi aukeratua izan zen. 1910ean hil zen.

Francoren tropek Irun okupatu ondoren, 1937an "Calle Mayor" izena berriz jartzea erabaki zen. Euskaraz, kale ez baina Karrika Nagu-



IUA: 25802

sia du orain izena.

Goiko argazkia XIX. mende bukaerakoa edo XX.aren hasierakoa da. Behekoa, 1970 urte ingurukoa.

Francisco Bellidoren inguruko informazioa: *Irungo kaleen izenak*. José Monje.

Irunero

Erredakzioa eta maketazioa:

Joseba Arozena eta Unai Oiartzun

Euskara zuzentzailea: Xabier Kerexeta

Publizitatea:

Sonia Garcia Olazabal, Amaia Terrazas

amaiaterrazasruiz@gmail.com

Ion Otxoa

ion@943sanebastian.com

Argitaratzailea:

Baseclick S.L.

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua:

SS-230-94.

Maiatzaren Lehena, 23 - 20304 IRUN

Tel: 673 39 84 57

Anaka kalea, 11
IRUN
943.61.54.57

TABISA
TANATORIO DEL BIDASOA

San Pedro kalea, 49
HONDARRIBIA
943.64.54.57



BETIDANIK KONFIANTZA ETA ARDURAREKIN



Taldearen babesean

Nerabeei laguntza eskainiko die “Gazteekin” programak

Zalantzak planteatzen dituen garaia da nerabezaroa. Arazoak ere sor ditzake batzuetan. Hori dela eta, “Gazteekin” laguntza programa antolatu du Irungo Udalak. Azaroaren 13tik aurrera, astero bilduko dira nerabeak taldeka. Bi multzo egingo dituzte: 12-14 urte bitartekoena, eta 15-17 urte dituztenena. Ostegunetan bilduko dira, esperientziak eta iritziak partekatzeko, eta arazoei irtenbideak bilatzeko. Psikologo talde batek bideratuko ditu saioak. Jon Arruabarrena izango da horietako bat. Laguntza programaz eta nerabezaroaren berezitasunez hitz egin du Arruabarrenak.



- Zergatik eskatzen du arreta berezia nerabezaroak?

Adin berezia da. Ez gaztearentzat bakarrik, familia guztiarentzat baizik. Krisi garaia da, baina ez zentzu negatiboan soilik. Aldaketa momentua da, trantsizioa. Haur garaiko zenbait gauza atzean uzten dira, baina aukera garaia ere bada, heldutasunaren ateak irekitzen direlako. Dena den, kontuan hartu behar da nerabezaroa oso termino zabala dela, bakoitzak baduelako berea. Denboran luzeagoa edo laburragoa izan daiteke, gainera.

- Gurasoak konturatzen al dira nerabezaroaren berezitasunaz?

Gurasoek beldurra diote nerabezaroari, gizartearen eraginez konnotazio negatiboa daukalako. Beldur horrek gazteak ez ulertzerara eramaten ditu. Gainera, nerabezaroan badago akziorako tendentzia bat. Gauzak zuzenean egiteko joera, pentsatu edo hausnartu beharrean. Askotan gurasoak ere sartzten dira dina-

mika horretan, baina beharrezkoa da tarteka gelditzea, distantzia hartzea eta pentsatzea.

- Nerabeak modu boluntarioan animatzen al dira laguntza taldeetan parte hartzera?

Gehienetan, gurasoek edo irakasleek gonbidatuta iristen dira. Lehenengo urtean behintzat, ez da ohikoa izaten gazte bat bere kabuz animatzea. Urtea pasata, batzuek taldea utzi nahi izaten dute, baina gehienek jarraipena ematen diote. Momentu horretan erabakia gaztearena izaten da. Beti gurasoen baimenarekin, noski.

- Zer nolako garrantzia dauka saioak taldeka egiteak?

Nerabezaroan gehien azpimarra daitekeen ideietako bat taldearen beharra da, pertenezia. Horregatik planteatzen da taldeka egitea, nahiz eta multzo naturala ez izan.

Psikologok bideratzaile lana egiten dugun arren, taldea da kezka

edo zalantza entzuten duena, eta erantzuna ematen duena. Taldearen iritziak balio handia du gaztearentzat.

- Nolakoa izaten da bileretako dinamika?

Saioak prozesu luze baten parte dira. Ez dira hitzaldiak; beraz, ez dira gai konkrituak lantzen. Lehen saioetan taldearen fun-

tzionamendurako arauak eta minimoak aipatzen ditugu. Hortik aurrera, saio bakoitzean, gazteek txandaka hitz egin eta beraien ardurak eta galderak kontatzen dituzte. Ondoren, taldeak erabakitzen du zein egoerak daukan urgentzia edo lehentasuna. Talde psikoterapeutikoak ez diren arren, lorpenak gazteentzat la-

gungarriak izatea da helburua.

- Zein aholku emango zenioke nerabe bati?

Nerabe bati aholkuak ematea konplikatua da. Ematen ahal dizkiozu, baina zaila da berarengan eragina izatea. Eraginkorragoa da gazteari hitz egiten utzi eta arretaz entzutea.

Olaizola

Immobiliaria agentzia

✓ Salmenta Alokairuak

✓ Promozio berriak

✓ Aholkularitza

Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585

info@inmobiliariaolaizola.com

www.inmobiliariaolaizola.com

INKESTA

Aurrekontu parte-hartzaileak

Irundarrek erabakiko dute udal aurrekontuko 1,5 milioi zertan inbertitu.



Imanol Garcia

Ni irundarra naiz eta ez dut aurrekontu parte-hartzaileen berririk izan. Ideia ona iruditzen zait eta ziur aski parte hartuko dut. 1,5 milioi euroak lanpostu berriak sortzeko erabili beharko lituzketela uste dut. Hirigintza, trafikoa edo garraioa hobetzeko inbertitzea egokia litzateke.

Antonio Pérez

Ideia ondo iruditzen zait, batez ere auzoz auzoz ahotsa izatea. Parte hartuko dudala uste dut. Ez dakit zehazki zertan inbertituko beharko genukeen diru hori, baina egun hauetan zerbait bururatuko zait. Ekimen garrantzitsua iruditzen zait, eta nire ustez ondo pentsatu behar ditugu proposamenak.



Pilar Rodríguez

Jendeak parte hartzeko aukera izatea oso ondo iruditzen zait. Garraioa hobetzeko aukera dagoela iruditzen zait; kotxea ez ateratzekotan oso zaila da mugitzea alde batetik bestera. Bestalde, enplegua sortzeko ekimenak sustatzea ondo egongo litzateke.



Emilio Salgado

Albista entzun dut eta ondo iruditzen zait. Egia esan, ezin izango dut parte hartu, kanpoan egongo naiz eta. Ene iritziz, Irunen oso ondo bizi gara eta ez dakit zertan erabil daitekeen horrenbeste diru. Larreaundin dagoen estazio elektrikoa lekuz aldatuko dute. Horixe da berririk onena. Ea laster amaitzen duten.



Mila Morales

Ez dut berririk izan ekimen honi buruz, baina oso ondo iruditzen zait. Beti egoten da gauzak hobetzeko aukera, garraiobideetan, adibidez. Egunero Oartzunera joan behar izaten dut eta oso zaila egiten zait garraio publikoak erabiltzea. Gazteentzako lana sortu eta helduentzat lehenago erretiratzeko aukera nabarmenduko nituzke proposamen interesgarrien artean.



BALIA EZAZU 700 € ARTEKO LAGUNTZA OFIZIALA

Aldatu zure bainera dutxa batengatik

Berrikuntza txiki bat, egundoko aldaketa

ESKATU AURREKONTUA IRUNERO PROMOZIOA AIPATUZ ETA OPARI BAT JASOKO DUZU

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Pelegrin de Uranzu, 9 (Urdanibia plazaren ondoan) - 20304 Irun
 943 615 184 - 687 572 920
 bainu.irun@gmail.com - www.bainu.eu
 Zarautz hiribidea, 86 - 20018 Donostia
 943 561 652



Jarduera berriak CASERen



- **Belanaldien arteko bi jarduera:** Azarotik ekainera arte Pio Barojako psikologia ikasleek aitona-amonekin batera zenbait jarduera egingo dituzte. Jarduera honen helburu bat parte-hartzaileen artean lotura bat sortzea da. Ekimen hau hirugarren urtez antolatu da eta aurten San Vicente de Pauleko lehen hezkuntzako ikasleek antzeko ekimen batean parte hartzeko aukera izango dute.

- **Taichi:** Pasa den urtean pilates egin zuten eta aurten taichi egingo dute.

- Musikaterapia

- **Abesbatza:** Joan den ikasturtean abesbatza bat sortu zuten Caser Anakan, eta aurten bai Anakan bai Betharramen antolatuko dira.

- **Aromaterapia:** Jarduera hau Betharramen egingo dute, Endanearekin batera.

- **Estimulazio kognitiboa:** Casereko aitona-amonek psikomotritzitatea eta estimulazio kognitiboa hobetzeko saioak organo baten laguntzaz egingo dituzte. Programa pilotua azaroan jarriko dute martxan.

- **Beste zenbait tailer:** Urtero arrakastatsua diren tailerrak errepikatuko dituzte; adibidez, gozogintzakoak, pizza sukaldatzekoak, ibilaldiak eta arnas errehabilitazioak.

Argazkietan, 2013an eta 2014an egindako zenbait jarduera agertzen dira.

Mintzalaguna, euskaraz mintzatzeko laguna

Euskararen erabilera bultzatzeko eta sustatzeko, Irungo Udalak, AEK eta Herri Jakintza euskaltegiekin batera, Mintzalagunaren edizio berri bat antolatatu du. Mintzalagunaren parte hartzen dutenak, helburu nagusia euskaraz hitz egitea izanik, beraiek erabakitako tokian eta orduan biltzen dira ikasturtean zehar: zerbait hartu, paseo bat eman, edozein ekintza egin. Gainera, ekintza hauen harira, egitasmoaren barruan irteerak antolatzen dira, tailerrak, ekintza kulturalak eta bestelakoak; baina beti euskaraz, giro onean.

Askorentzat, lagun euskaldunak egiteko modua ere bada, taldetik kanpo ere euskaraz bizitzeko aukera zabaltzen dute eta.

Antolatzaileen esanetan, "denok dakigu hizkuntza bat ikasteko beharrezkoa dela hizkuntza hori praktikatzea. Horregatik, eta aurreko edizioetan bezala, elkarrizketaren bidez ezagutzak hain modu atsegin eta errazean jartzea jende askori interesatzen zaio, eta ekimen interesgarri batean parte hartuta itzultzen dira".



Ezkerretik ekubira: Enara Zubeldi (AEK), Jaione Campo (Udal Euskaltegia), Fernando San Martin (Irungo Udaleko Euskara ordezkaria), Miren Olaskoaga (Mintzalaguneko parte-hartzailea) eta Gemma Urtizberea (Herri Jakintza).

IZENA EMATEKO EPEA: urriaren 13tik 18ra SAC/HAZEn, edo 19ra arte www.irun.org/euskara atarian.

Irunero etxean jaso ahal izango da azarotik

Harpidetuzaituz !!

Azarotik aurrera *Irunero* postaz bidaliko zaie harpidetzen diren irakurleei. Urtebetez, hamabost egunean behin, harpidedunak etxean edo nahi duten beste helbide batean aldizkaria jaso ahal izango du 19,90 euroren truke. Hala nahi duenak aldameneko txartelean eskatzen diren datuak eman behar ditu, honako bide hauetakoren bat baliatuz:

Postaz: Maiatzaren Lehena, 23. IRUN. 20304.
irunero@irunero.com

Telefonoz: 693 82 80 99

Baldintzak:

Adierazitako prezioa Penintsulako eta Balear Uhartee-tako eskaerei aplikatuko zaie.

Jasotako datuak adierazitako helbururako baino ez dira erabiliko.

Irunero

BEHARREZKO DATUAK

- ✓ Izen-deiturak.....
- ✓ Helbidea.....
- ✓ Herria..... ✓ Posta-kodea.....

ORDAINTZEKO ERA

Diru-sarrera honako kontuan egin behar da:

ES 28 2095 5045 82 1076330140

19,90 €
urtean

Iñaki Bengoetxea, sagardogilea

“Kalitatezko lehengaia momentu egokian biltzea ezinbestekoa da”

Hiru hilabete baino gehiago geratzen dira oraindik lehen “Txotx!” oihua entzuteko, urteko sagardo berria dastatzeko. Lehengo, lan handia egin beharko dute sagardogileek urtarilaren amaieran produkturik onena eskaini ahal izateko. Sagarrak biltzea da prozesu luzearen lehen urratsa. Zubieta finkako sagarrondoaren artean topatu dugu, hain zuzen ere, Irungo Ola Sagardotegiko Iñaki Bengoetxea.



Jarraibideak eman ondoren, zuhaitzak astintzen utzi ditu langileak Bengoetxeak. “Goizean telebistakoak ere izan dira hemen. Ea martxa hartzen dugun behingoz”, aipatu du, sagardogilearen arduraz. Urriaren hasiera iritsi da, eta sagarrak biltzen hasi berriak dira. Hilabete eta erdiko lana izango dute, gutxi gorabehera.

Sagardoa egiteko prozesuaren hasierak oinarri sendoa jarriko duela gogoratu du Iñaki Bengoetxeak: “Kalitatezko lehengaia momentu egokian biltzea ezinbestekoa da”. Makinaria probatzen hasi badira ere, eskuz biltzen dituzte oraindik sagar gehienak, kizkia izeneko tresnarekin. Guztira, 190.000 kilo inguru bilduko dituzte Olako sagardoa egiteko. Horietako asko, sagardotegiko lursailletakoak, baina baita eskualdeko baserrietakoak ere. “Etxean hamaika sail ditut. Gainera, Irungo, Hondarribiko, baita Zarauzko baserrietako sagarrak ere biltzen ditugu”. Lursail bakoitzean, sagar mota ezberdinak izaten dira. Zubietan bertan, hogei modalitate ezberdin ere badira. Baina, ondoren, nahasi egingo dituzte.

Teknologiak prozesua erraztu duela azaldu du Iñaki Bengoetxeak: “Gaur egun, PH adierazleari esker, badakigu sagar mota bakoitza garrantza den edo ez”. Sagarra ondo bildu, sailkatu eta nahastuta ere, hurrengo urratsak gertutik jarraitu beharra dago. “Trasiegoak momentu egokian egin behar dira, eta fermentazioa ere kontrolatu behar da”, aipatu du Bengoetxeak. Guztia kontuan hartuta ere, zaila da prozesuaren lehen fasea hasi bezain pronto sagardoa nolakoa izango den aurreratzea. Sagardogilea ausartu da, hala ere, pista batzuk ematera: “Udara nahiko arraroa izan da eguraldiari dagokionez, baina irailean beroa egin du eta udazkenak horrela jarraitzen badu, sagardo ona aterako dela espero dugu”. Urtetako esperientziari esker, aurreikuspenak egiteko ahalmena dauka Iñaki.

Hamabost urte darama sagardogintzaren negozioan. Txikitatik izan du, hala ere, sagardoarekiko lotura. Meaka auzoko baserrian hazitakoa da, eta betidanik ezagutu du sagardoa egiteko ohitura: “Amaren baserrian tolarea geneukan, aitona hondarribiarrarenean ere bai. Umeak ginela pitarra edaten genuen”. Hirigunean sagardotegiak bazirela azpimarratu du: “Larretxipin eta Santiago aldean gogoratzen ditut nik”. Denboraren poderioz, tradizio hura galdu eta ahaztu egin zen. Gaur egun, Irun ez da

sagardoaren lurraldean sartzen. Hausnarketarako bidea zabaldu du Bengoetxeak: “Mapatik ezabatu gaituzte. Baina benetan Irunen kulturarik edo afiziorik ez baldin badago, zergatik etortzen dira herrietatik sagardoa saltzera?”.

Olak irundarron iragan sagardoazaleari ja-

Goian, Iñaki Bengoetxea sagardogilea. Eskuinean, sagarrondo bat.



rraipena eman nahi dio.

Hori dela eta, kultura eta ohitura zabalteko lana egin ohi du Bengoetxea familiak, Sagarraren Egunarekin eta sagardotegian antolatzen dituen hainbat jarduerarekin. “Euskal Jiran edo Santo Tomas egunean zapia jantzi eta Sagardoa edaten du jende askok. Baina egunero koan gehienek ez daukate ohitura hori”. Badute antza, beraz, sagardoak eta euskarak. Badago lana aurretik.

“Gaur egun, PH adierazleari esker, badakigu sagar mota bakoitza garrantza den edo ez”



- METODOA: K-STRETCH®
- METODOA: HIPOPRESIBOA®
- BERREZIKETA
- POSTURAL GLOBALA (RPG)
- PILATES
- PILATES HAURDUNENTZAT

www.kineesis.net www.k-stretch.com

Arantzateko Jauna kalea, 10 behe. IRUN. 943 626 983 - 606 298 640



Bi kiroldegi, aukera zabala

Zerbitzu anitzak eskaintzen dituzte Artalekuk eta Azken Portuk

Ikasturtea hastearekin batera, ohitura osasungarriak berreskuratzeko garaia izaten da urria. Udako gehiegikeriak eta ohitura txarrak berdintzeko asmoz, kiroldegirako bidea hartzen du jende askok. Irundarrek aukera bikoitza daukate gaur egun. Artalekuko kiroldegiak aniztasuna eta esperientzia eskaintzen ditu. Azken Portuk, berriz, modernotasuna. Bien artean, kirol eskaintza oparoa osatzen dute.

Kirol jardueraren neurgailu moduan azter daitezke hiriko kiroldegiak. Irunen eskaintza bateratua egiten dute Artalekuk eta Azken Portuk. 9.000 bazkide baino gehiago dituzte, populazioaren %15 inguru. Bazkideak dira normalean kiroldegiak betetzen dituztenak, baina abonatu gabe ere instalazioak erabil daitezke. Nolanahi ere, urrian gora egiten du kiroldegietako aktibitateak. Hala azaldu du Iñigo Zumeaga Artalekuko eta Azken Portuko zuzendariak: "Bi momentu berezi izaten dira. Urria da bat, oportunitate atera eta ikasturteari ekitearekin batera. Bestea, urtarrilean, urte berriko intentzio onak direla eta".

Urritik martxora bitartekoa izaten da urte erdirik emankorrena kiroldegietan. Eguraldi ona hasten denean, berriz, jendeak nahiago izaten ditu kaleko jarduerak. Kiroldegira itzuli berriak dira, beraz, irundar asko. Kokapenaren arabera aukeratuko zuten gehienek Artaleku edo Azken Portu. Baina badira ezberdintasunak bien artean.

Artaleku kiroldegi bateranoa da, hogeita zazpi urte bete ditu. Hala ere, izan du bere bilakaera denboran zehar. "Aldaketa dezente egin izan dira urte guzti hauetan. Hilarbete honetan bertan, gimnasioa zoruaren zati bat aldatu dugu, azken belaunaldikoa jartzeko", azaldu du Zumeagak. Artalekuren aniztasuna azpimarratu du zuzendariak. Kirol ugari praktika dai-

tezke kiroldegian. Igerilekuak, spa, frontoia, trinketea, errokodromoa, fitness aretoa, gimnasioak topa ditzake kirolariak Artalekun. Baina pista da, noski, instalazioaren balio handienetarikoa bat. "Bidasoaren mailako talde batek joka dezake hemen, Asobal Ligan, baita Europan ere", azpimarratu du Iñigo Zumeagak.

Azken Portuk ez du Artalekuk adinako aniztasuna eskaintzen. Baina kalitate handiko azpiegiturak ditu. "Igerilekua handiagoa da. Spari dagokionez, fisioterapia eta dietista zerbitzuak ere badaude", nabarmendu du Zumeagak. 2007. urtean zabalduko instalazioa da, modernoagoa. Hala ere, bi kiroldegiak "osagarriak" direla aipatu du zuzendariak: "Esate baterako, Artalekuko fitness aretoak pisu librean aritzeko aukera handia eskaintzen du. Azken Portukoak, aldiz, korrika egiteko zinta eta bizikleta gehiago dauzka". Oro har, Azken Portuk eta Artalekuk ematen duten zerbitzua Irun hiriarentzat nahikoa dela uste du Zumeagak. Hutsune bakar batzuk ikusten ditu, hala ere, zuzendariak: "Igerilekuak txiki gelditzen zaizkigu. Haurren ikastaroetan, jendea kanpoan gelditzen da, itxaron-zerrendak egoten dira". Gabeziak ere badituzte, beraz, kiroldegiek.

Ikastaroen arrakasta

Kirola egiten hasteko, ohikoa izaten da ikastaroren batean izena ematea. Haur,



Iñigo Zumeaga Artaleku eta Azken Portuko Zuzendaria



Azken Portu eta Artaleku polikiroldegiak

gazte edo heldu, denek daukate hainbat kirol jardueratan aritzeko aukera. Igerilekuari dagokionez, arrakastatsuenak hasiberrientzako ikastaroak izaten dira. Aretoetan, berriz, pilatesa eta cycling delakoa dira izarrak.

Baina aurten gogor jo duen modalitatea zunba da. "Aerobikaren oinarri bat badauka, baina dantzarekin lotura handiagoa du. Jendeak oso gustura egiten du", azaldu

du Zumeagak. Bi kiroldegietakoak batuta, 3.000 lagun baino gehiago dira hainbat ikastarotan parte hartzen dutenak. Irunen kirola egiteko ohitura barneratua dago, zuzendariaren aburuz: "Kirol ezberdinetako elkarte asko daude, Behobia-Donostia proba garrantzitsua ere badago... Horrek guzti horrek eragina dauka".

Zaletasun horren adibide dira Azken Portu eta Artaleku.

sartu www.txingudionline.com-en eta ezagutu hobeto zure hiria

Ereala munduan, Kirolari, Desde nueve metros, Festivalsanek, La Basauria, Ocurra, Foz de Uña, Naturas del Bidasoa, Zabala, Niriñan, Bidasoa, Real Unión, Txingudi al Hala, Ponte en Birmá



HENDAIA IRUN HONDARRIBIA



Festivalsanek, La Basauria, Ocurra, Foz de Uña, Naturas del Bidasoa, Zabala, Niriñan, Bidasoa, Real Unión, Txingudi al Hala, Ponte en Birmá, Ereala munduan, Kirolari, Desde nueve metros

berriak, erreportajeak, historia, kirolak, hurbiltasuna, eztabaidak

Lehen urratsak kirol munduan

Jarduera fisikoa bultzatu nahi dute Eskola Kirola eta Ikas Sasoi programek

Kirolarekin lotura estua duen hiria da Irun. Asko dira goi mailan izan diren eta ari diren elkarte eta kirolariak. Hainbat kirol eta modalitatetan lortu dute oihartzuna irundarrek. Baina, horretarako, txikitatik kirol jarduera sustatzea ezinbestekoa izaten da. Udalak martxan jarritako Eskola Kirola eta Ikas Sasoi programek formazio-lan horixe dute helburu.



Eskola Kirola programan parte hartzen duten zenbait haur.

Urte osoan zehar kirola egiteko aukera izango dute haur eta gazte irundarrek 2014/2015 ikasturtean. Eskola Kirola programari esker, Lehen Hezkuntzako hirugarren eta seigarren maila arteko ikasleek aurreneko urratsak emango dituzte kirol munduan. Futbola eta eskubaloia dira tradizioz Irunen gaztetxo gehien biltzen dituzten kirolak. Baina Eskola Kirolak eskaintza zabaldu du azken urteotan. Saskibaloira, atletismora, igeriketara, tenisera, pilotara eta errugbira ere hurbilduko ditu haurrak.

Kirol mundura bideratzeaz gain, haurrak heztea ere bada Eskola Kirolaren helburua. "Ikasgeletan egiten den lan pedagogikoaren osagarria da", azaldu du Fernando San Martín Udaleko Hezkuntza eta Euskara arduradunak. Gainera, euskararen erabilera sustatzeko aukera "ezin hobea" dela azpimarratu du San Martinek. Bide batez, Irungo neskak ere animatu nahi izan ditu Udalak, gutxiago izaten baitira parte hartzen dutenak, urtero.

Gaztetan ere kirolari

Haur gehienek probatzen dute kirolen bat edo beste. Behin nerabezeroan sartuta, ordea, askok alde batera uzten dute jarduera fisikoa. Arazo horri aurre egin nahi dio Ikas Sasoi programak. Hori dela eta, Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzenduta dago. Pedro Alegre Udaleko Kirol arduradunak azaldu du Ikas Sasoi Eskola Kirolari "jarraipena" ematen diola. Hogeita bost jarduera proposatuko dizkie programak hiriko nerabeei, Irungo hamasei kirol elkarterekin elkarlanean.



BELASKOENEA HAUR HEZKUNTZA KANDINSKY-REN MODURA ARTISTAK GARA

Lehenengo kolore berriak sortu ditugu...



eta ondoren, bakoitzak koadro osoa lortzeko, koadroaren zati bat margotzen du.



"Zirkulu kontzentrikoak" Wassily Kandinsky



Begira zein polita gelditu zaigun!

Belaskoenea Ikastetxea

BAKAILAOA DASTA EZAZU



Nola bideratu gure **haurren beldurrak**

Aurreko atalean azaldu bezala, BELDURRA emozioa da, eta ongi bideratzen ikasiz gero baliagarria izan daiteke bizitzan. Baina zertarako?

Arriskua, min fisikoa edo psikologikoa egon daitekeela ohartzean sentitzen dugun emozioa da BELDURRA. Emozio honek, arriskutik babestuz, ekintza galarazten du eta ingurunera moldatzen laguntzen digu. Nola ez sentitu beldurra hondartzan gaudeanean eta bat-batean olatuak handitzen hasten direnean? Edo bihar azterketa bat dugula bat-batean esaten diguteanean? Ez dugu utzi behar BELDURRAK gure bizitza negatiboki eralda dezan, baina ongi bideratuz gero baliagarria izan daiteke, ezta? Olatu handiak daudenean edo bihar azterketa dugunean beldurra sentitzen dugu, horrek ABISUA ematen digu, eta horrela adi gaude gure jokaera positiboki bideratzeko.

Haurren beldurrak ezberdinak izan dira belaunaldietan zehar. Beldurrak egoera sozialaren, politikoaren eta gurasoen beldurren menpe daude. Haurren beldur asko helduek dira. Horregatik, aurreko atalean aipatu bezala, helduok geure beldurren kontzientzia izan behar dugu: haur edo gaztearekiko beldurra sentitzean, gelditu, kontzientzia hartu eta bideratzen ikasi. Haurrak bere burua igerilekura botatzen duenean, gure oi-huekin haurra beldurtu baino lehen, hobe genuke gelditu eta ea benetako arriskurik dauden hausnartzea.

Beldurra erregulatzeko lehen pausoa beldurra senti-



tzea normala dela onartzea eta emozio honen kontzientzia hartzea da. Emozio atsegina ez izan arren, arriskutik babesten gaituela ohartzean gaudeanean, onartu eta ulertu egiten dugu. Beldurrik sentitu gabe bizi behar dugula pentsatzeak antsietatea sorrarazten du eta ez digu beldurra erregulatzeko estrategiak bilatzen laguntzen. Askotan, beldurra emozio ez atsegina delako, haurrak beldurrik ez sentitzea lortu nahi dugu, baina ezinezkoa da, emozio espontaneo da eta. Hala ere, beldur emozioaren energia modu zentzudun batean gure onerako bidera daitekeela ohartzean gaudeanean, erregulatzeko estrategiak sortuko ditugu, eta horrela gure haurra eta gure burua lagunduko ditugu.

Beldurra sentitzea normala eta ona dela ohartzean ga-

nean, prest gaude gaintzen hasteko. Ez da ausarta beldurrik sentitzen ez duena, gaintzen saiatzen dena baizik. Ideia hori funtsezkoa da, hamaika alditan errepika dezakegu, haurrek erreferentzia positibo bat izan dezaten. Baina nola gaintu?

Beldurra erregulatzeko bide asko daude eta norberaren izaera eta inguruarekin erlazioaturik daude, baina haurra seguru sentitzea da gaintzen hasteko lehen urratsa. Nor da haurrari segurtasuna ematen diona?

Heldua da haurrak bere beldurrik gaintzen ikasteko erreferentziatzat hartuko duen sostengu garrantzitsua. Gure haurren ondoan egon behar dugu bidea planifikatzen, segurtasuna eta konfiantza ematen. Adibide bat?

Beldurra sentitzea normala eta ona dela ohartzean gaudeanean, prest gaude gaintzen hasteko.

Haurra entzun, sentitzen duena hitzetan ipintzen lagunduz: "txakurren beldur naiz kosk egingo didatelako".

- Normaltasunez jaso emozioa, ulertuz eta onartuz: "Egia, kontuz ibili behar da txakurrekin. Baina txakurrek ere bere alde ederra dute; zenbait txakur ongi hezita daude, eta polita izan daiteke haiekin jolastea, ezta? Nola egin dezakegu?"

- Ez dakit.

- Zer iruditzen lehenik lagun txakurrak ukitzen baditugu? Txakurra etzatea eta gu hurbiltzea? Gero, nahi duzunean ukitzen hasiko zara, bai?

Helduok bidea egiten laguntzea litzateke gakoa, modu progresiboan eta berarekin erabakiak adostuz.

Ez da erraza, badakit, batez ere guk ez dugulako horrelako eredurik izan. Gehienetan, zein da helduon jarrera?

✓ beldurrak kontrolatzen behartzen ditugu: "ea, tira, eta ez tontakeriak esan!! Egin eta kitto!!!!"

✓ beldur direlako dena onartzen diegu: "bizikletan ibiltzeko beldur zara? Lasai, ez du garrantzirik"

Esan bezala, oso ohikoa da "behatza luzatuz" jokatzeko modu horretan egotea; baina, ohartzean gaudeanean, bide hezitzaile bat bilatzen saia gaitzke, ezta? Saiatuz lortu ditugu erreferentzia berriak.

Bestalde, jolas sinbolikoa oso garrantzitsua da haurrarentzat beldurrak gaintzen jakiteko. Jolasaren bidez haurrak egunez egun bizitzen dituen egoerak eta kezkek berbizitzen ditu, eta, horrela, arian-arian gertatutakoa ulertzen eta onartzen du. Beraz, teknologia berriak nagusi diren gizarte honetan, haurrari lagunekin libreki jolasteko aukera eman behar diogu, jolas libre eta sinbolikoak funtsezkoak direlako haren garapenean.

Beraz, aurrera, ekinez eta eginez ikas baitezakegu BELDURRA bere negatibotasuna kentzen eta gure bizitzan bere baliagarritasuna bilatzen.

Mapi Urresti Ortiz

KUTTUN aholkularitza psikopedagogikoa



- Indoor zikloa
- Tonifikazioa
- Pilates
- Step
- Zumba
- Muskulazioa
- Karatea: haurrak/helduak
- Tai chi
- Defentsa pertsonala
- Kick boxing
- Brasiljar Jiu Jitsu

Bazkide nahiz bazkide ez direnentzat
MASAJEA

Toki Alai BHI 4. maila

NOLA HITZ EGITEN DUGU EGUNGO GAZTEOK?

Jende askok esaten du gazteok ez dugula euskaraz hitz egiten, edo hitz egitekotan gaizki egiten dugula, baina oker dago. 1986. urtean egindako inkesta batean hamarretik bik bakarrik zekien euskaraz, baina gaur egun, aldiz, hamarretik zazpik. Kopuru hau handia da, gazte hauen %52ak guraso erdaldunak dituela jakinik. Egungo teknologia berriei erreparatzen badiegu, euskaraz erabiltzen al ditugu? WhatsApp-a, adibidez, euskaraz erabiltzeko aukera dugu. Gazteok euskaraz erabiltzen ditugunean ez ditugu hitz osoak idazten, eta hori heldu gehienek ez dute ulertzen.

Helduen ustez, mezuak modu horretan idazten baditugu, euskaraz ondo idazten ahaztuko zaigu. Ez nago ados horrekin, uste dut bereizten ditugula idazkera formala eta informala.

EUSKALKIAK EZAGUTZEN AL DITUGU? ERABILTZEN DITUGU?

Bai, euskalkiak ezagutzen ditugu, batzuetan beste herrietako gazteekin hitz egiten dugunean hasieran elkar ulertzea kostatzen zaigu, baina gero elkarrekin erraz moldatzen gara, denok baikara euskaldunak! Euskalkiek gure hizkuntza aberasten dutela uste dut, nahiz eta elkar ulertzeko euskara batua erabili.

ZER IRITZI DUGU EUSKAÑOLARI EDO FRANTSEUSKARARI BURUZ?

Gure herrian, Irunen, asko erabiltzen dugula pentsatzen dut. Institutuan erraztasun handia dugu irakasleekin euskaraz egiteko, eta aldi berean gelakide batekin gazteleraz, ia pentsatu gabe ateratzen zaigu.

Nik uste dut ez dela guztiz okerra "euskañola" erabiltzea, betiere non eta norekin hitz egiten ari zaren kontuan hartzen baduzu. Bi hizkuntza elkarrekin bizi direlako gertatzen da hau. Euskarak hizkuntza indartsua baina malgua izan behar duela iruditzen zait.

ZENBAT ARGITARATU BEHAR DUT SARE SOZIALETAN?



Sare sozialetan dugun jardunaz ari garela, maiz bada bat sortzen zaigu, hain zuzen, edukiak argitaratzeko maiztasunaren ingurukoa. Kezka hau, bereziki, sareak susta-

pen komertzialerako erabiltzen dituztenen artean sortu ohi da, enpresak izan, bere egoera laborala hobetu nahi duen profesionala izan.

Lehenik eta behin, gogorazi behar dugu funtsezkoa mamia dela, haren kalitatea, eta behin hori bermatu eta gero has gaitzkeela maiztasunaz kezkatzen.

Facebook sarearen bataz besteko gaurkotzearen maiztasuna ez da handia, mezuek hiru bat orduko iraupena izan ohi dute eta. *Prime time* delakoa ezagututa, hots, gure markaren audientzia gehieneko ordua, "erraz" koka dezakegu egoera baten gaurkotzea, gure jarraitzaile gehienengan irits dadin.

Marka handien batez bestekoari erreparatuta, egunean batek hirura bitarteko argitalpenak egiten dituztela ikusiko dugu, eta batzuek baita bi egunean behin ere. Maiztasun hori bi eragilek baldintzatzen dute: markari buruzko albisteak sortzeko ahalmena da bata eta jarraitzaileak ez nekarazteko asmoa da bestea.

Oro har, pyme edo saltoki arrunt batentzat, egoera behin edo bitan gaurkotzeari nahikoa deritzot, betiere haietako bat benetan interesgarria izanez gero.

Twitter, ordea, besterik da, mezuek ordu erdi eskaseko iraupena izan ohi dutelako, gure *timeline* espazioa okupatzeko lehia ikaragarria da eta. Kontuan hartuta ikerketa batzuen arabera laugarren txiotik aurrera jarraitzaileen arreta mailak sekulako beherakada nozitzen duela, pyme batentzat lau txio eguneko aski dela ondoriozta dezakegu.

Edonola ere, gogora ekarri behar dugu inportanteena maiztasun desberdinekin saiatzeko dela, eta haietatik geure ondorioak lortzea, bakoitzak bere audientziak izaten ditu eta.

Pablo Moratinos

Marketing Online-ko aholkularia
3yMedia Comunicación Digital

Arrigain Asesores S.L.

ZERGAK - LAN-KONTUAK - KONTULARITZA - ASEGURUAK



Zerbitzuak:

Kudeaketa administratibak, laborulak, kontularitza-zerbitzuak eta zergienak
Inbiziaren eskualdeak
Ondarearen transmisioak, dekontzako, inbentariak...

Errenta aitortpenak
Aseguru orokorrak
Eta abar...

Sport Jam mundiala

Azaroaren 15ean eta 16an IX. edizioa ospatuko da



Goian, 2013ko Sport Jam-eko irudiak.

Beheko hiru argazkitan *El establo pirata*ko gazteak, beren scootekin.

Azaroaren 15ean eta 16an ospatuko da Sport Jam-en 9. edizioa. Aurten antolatzaileek berrikuntzak iragarri dituzte, scootari lotutakoak batez ere. Azkeneko urteetan kirol honek gero eta garrantzi handiagoa hartu du eta oraingoan protagonista izango da, munduko onenek parte hartuko dute eta. Bestalde, jarri ohi diren saltokietan skatearen, arroparen eta scootaren alorreko produktu berriak eskainiko dituzte.

2014an scoota Sport Jameko protagonista izango da, eta azoka, sekula baino internacionalagoa. Aurtengo Prize Money delakoa 2.000 euro tara handitu dutelako munduko onenek etorriko dira Irunera. Estanis Polo Sport Jameko zuzendariaren esanetan, "aurten mundu mailako lehiaketa bat antolatu dugu, munduko *rider* hoberenak etorriko dira eta scooter marka ospetsuenetakoak izango dira bertan".

Irunen haur eta gazte askok kirol hau praktikatzeko dute, eta lehiaketan parte hartzeko aukera izango dute: alde bategatik, lehiaketa profesionala antolatu da

eta, bestalde, *amateur* mailakoa.

El establo pirata Irunen scoota sustatzen duen denda bat da. Bere taldea du eta astero Letxunborron duen *indoor* skate parkean biltzen dira zaleak. Urtero parte hartzen du Sport Jamen. Saltoki bat ere jartzen du, non scootak, arropa eta beste zenbait produktu topa daitezkeen. "Gazteentzat aukera ona da munduko hoberekin patinatzeko eta haiekin hitz egiteko", adierazi du *El establo pirata*ko Juan Luis Cáceresek. Urtean zehar maila hobetzen saiatzen dira eta azoka sari bat da gaztetxo hauentzat".

GB EVENTOS

Ekitaldien antolakuntza, osorik eta nahi erara

www.gbeventos.es

Enpresa ekitaldiak

Erakunde ekitaldiak

Gai baten inguruko ekitaldiak

Jai herrikoiak

Ezkontzak

Urteurrenak

Oscar Portugués
+ DJ *Sizano*

Ekitaldiak zuk nahi duzun erara
Zer behar duzu?

WWW.CASATE EN HONDARRIBIA.COM



Bekak

- 2015EKO UDARAKO BEKAK

Eusko Jauraritzak 533 plaza eskaintzen ditu, alemanera ikastaroak egiteko Alemanian; frantsesezkoak, Frantzia, eta ingelesezkoak, Erresuma Batuan eta Irlandan.

- Eskatzaileak: DBHko 3. eta 4.eko eta Batxilergoko 1. eta 2. mailako ikasleak.

- Epea: azaroak 3

Informazio gehiago:
www.irun.org/igazte



- MUSIKA IKASLEENTZAKO YAMAHA BEKAK

- Deialdigilea: Yamaha Europa Musika Fundazioa

- Baldintzak: 25 urtetik beherakoak

- 45 beka izango dira

- Epea: Azaroak 30



Ekintzak

- GAZTE SORTZAILEEN 168 TAILER

Deialdigilea: Kutxa Kultur Class



Edukia: Gazte sortzaileak bultzatzeko eta haiei laguntzeko asmoz, sormenezko talentua erakusteko eta zabaltzeko plataforma gisa (gastronomia, ekologia, diseinua, teknologia berriak...).

Baldintzak: Gazteei zuzenduta dago, 18-35 urte artekoak.

Epea: Urriak 22

Informazioa: Musika:
musika@kutzakultur.com
Moda:
moda@kutzakultur.com
Hiria:
hiria@kutzakultur.com

- "KONEKTATUTA" JOKO LEHIAKETA

Deialdigilea: Fundación de Ayuda contra la Drogadicción

Edukia: Internet eta informa-



zio eta komunikazio teknologien erabilpen arduratsuan sensibilizatzea.

Baldintzak: Espainiar estatuan bizi diren 14-16 urte arteko edozein gaztek parte har dezake joko-lehiaketa honetan. Izen ematea barkarka egin beharko da.

Epea: Azaroak 16

Informazioa:
contacto@conectado-seljuego.com

- GAZTEZULO V. BIDEO LEHIAKETA

Deialdigilea: Gaztezulo.

Edukia: 'Hi eta hire munduak'. Iraupena: gutxienez minutu 1 eta gehienez 3 minutu.

Baldintzak: 16 urtetik gorako gazteentzat. Lanek euskaraz izan beharko dute.

Epea: Azaroak 6

Informazioa:
zuzendaria@gaztezulo.com
943 458 408



Lan eskaintza

Elurretan lan egitea

ARAMON:

Eskaintzak: Aragoiko Pirinioetako Cerlerreko, Formigaleko eta Panticosako estazioetarako eta Teruelgo Mendiko Javalambre eta Valdelinareseko estazioetarako, 2014-2015 kanpainarako.

Epea: 2014ko urriaren 20ra arte.

SIERRA DE BIÉJAR:

La Covatillako estazioak 60 lanpostu eskaintzen ditu eski-denboraldirako: ostalaritzan, pistetan, komunikazioan edo mantentze-lanetan.

SPORT HOTELS RESORT & SPA

Sport Hotels Resort & Spa hotel guneak Andorran. Sukaldariak, pisu-zerbitzariak eta mandatariak behar dituzte, besteak beste.

Epea: azaroaren 15an.



zure enpresari
internetetik zabaltzen
laguntzen diogu

- marketing online
- bideo online
- web orriak
- sare sozialak
- formakuntza



**Urriaren 18an**

"Artekaña" garagardo artisauen azoka.

- Non: Ficoban.
- Ordutegia: 12:00etatik goizaldeko 2:00ak arte.
- Sarrera: 5 euro.

**Urriaren 18an**

Ibilaldia: Arlaban gaina / Oñati

Antolatzailea: Erlaitz Mendi elkarte.

- Informazio gehiago:

www.erlaitz.com

Urriaren 18an

Magia Jaialdia

Familia osorako ikuskizuna da eta Irungo "Iurgi" magoak eskainiko du. Besteak beste, lebitazio saioa eta usoak zein untxia ikusgai izango dira.

- Ordua: 17:00etan
- Non: Ficoban.
- Sarrera: 6 euro.

**Urriaren 18an**

José María Maldonadoren gitarra kontzertua

- Non: Oiasso Museoa.
- Ordua: 19:00etan.
- Antolatzailea: JACOBI, Irun-Bidasoko Done Jakue Elkarte.

Urriaren 19an

Ibilaldia

- Zer: Irungo Santiago Bideetan barnako ibilaldi gidatua.
- Non: Santiagoko zubian.
- Ordua: 10:00etan.
- Gidaria: Aitor Puche.

Antolatzailea: JACOBI, Irun-Bidasoko Done Jakue Elkarte.

Urriaren 24an

Cinema Paradiso "Nebraska".



- Non? Amaia KZn
- Ordua: 20:00etan
- Sarrera: 5,10 euro.

Urriaren 29an

Kontu kontari haurrentzat: "Las aventuras de Brunilda"

- Non? Ikust Alaia Udal liburutegian.
- Ordua: 17:30ean.
- Doako sarrera.

Aurrekontu parte-hartzaileak

16 eta 30 urte bitarteko gazteek Irungo aurrekontuaren 200.000 euro zertan inbertitu ebazteko proposamenak egin ahal dituzte.

Noiz? Urriaren 14an, Irun Factoryn
Urriaren 21ean, Mondragon Unibertsitatean
Urriaren 28an, Martindozenea Gaztelekuan

Ordua? Hiru bilerak 18:00etan hasiko dira.

**EKAR TELEINMOBILIARIA**

943 628 333

info@ekarinmobiliaria.com



IRUN Erref: 04202

180 m², 4 logela (2 bikoitz, 2 bakun), 2 bainugela, komuna, egongela, sukaldea, jangela, terraza, balkoia, trastelekua, gasezko berogailua, tximinia txikia; kanpora, E/M orientazioa, eguzkitsua. Altzariduna. Garaje itxia 2 autorentzat. Kirol instalazioak.

Prezioa: 1.000 €



IRUN Erref: 04205

Etxebizitza erabat zaharberria. Azalera: 62 m². 2 logela bikoitz, bainugela 1, egongela, sukaldea, balkoia, trastelekua, igogailua; kanpora, ekialde / mendebalde orientazioa, eguzkitsua.

Prezioa: 135.000 €
(22.462.110 pta)



IRUN Erref: 04187

Azalera: 60 m². 2 logela (bikoitz 1, bakun 1), bainugela 1, sukaldea, egongela, balkoia, igogailua, gasezko berogailua; kanpora, hegoaldera, eguzki-tsua.

Prezioa: 156.000 €
(25.956.216 pta)



IRUN Erref: 04186

Azalera: 52 m². 2 logela, bainugela, sukaldea, egongela; kanpora. Prezioa negoziata daiteke.

Prezioa: 80.000 €
(13.310.880 pta)



HENDAIA Erref: 03323

Hondartzan, lehen ilaran. Azalera: 30 m², logela 1, bainugela, komuna, egongela sukalde amerikarra, terraza, igogailua, berogailu elektrikoa; kanpora, hegoaldera, eguzkitsua.

Aukeran: aparkaleku estalia.

Prezioa: 140.000 €
(23.294.040 pta)



HENDAIA Erref: 04063

Erabat zaharberria. 45 m², logela bikoitz bat (bi egiteko aukera), bainugela, egongela, sukaldea, ganbara, berogailu elektrikoa; kanpora, mendebaldera, eguzkitsua, bistak.

Prezioa: 159.000 €
(26.455.374 pta)



HENDAIA Erref: 03511

Hendaia gainetan, berriki eraikitako inguru lasaian. 65 m². Bi logela bikoitz, bainugela, komuna, 19 m²ko egongela, sukaldea, 10 m²ko terraza, bistak, 3 armairudun trastelekua, berogailua; oso eguzkitsua. Aparkalekua.



IRUN Erref: 03878

106 m² bi solairutan, 5 logela (2 bikoitz, 3 bakun), egongela, sukalde lorategira irteeraduna, bainugela, gasolezko berogailua; eguzkitsua. Aparkalekua kanpoan 3 autorentzat, arrapaladuna. Sotoa eta txokoa.



IRUN Erref: 03898

80 m², 3 logela (2 bikoitz, bakun 1), bainugela, komuna, egongela eta sukalde handia, balkoia, igogailua, armairuak; hegoaldera, eguzkitsua. Zerbitzu guztietatik eta Pinudiko parketik hurbil. Minusbaliatuentzako sarbidea.

ERAKUSKETA "ETA ROCKA BIDASORA IRITSI ZEN"

Zer? "Eta Rocka Bidasora iritsi zen" erakusketak gure artean, 1960etik 1975era sortu ziren taldeei buruzko ibilbide sakon bat izan nahi du. Xedea soinu moderno horiekin disfrutatzea eta disfrutaraztea da. Gogora dakar tzanen zerrenda luzea da: Los Tarántulas, Los Cunix, Los Strings, Los Vamps, Black Stone, Los Tercos, Los Bitters, Los Ruidos, Ma-




dreselva...

Non? AMAIA KZn

Ordutegia: Asteartetik larunbatera: 18:00-21:00 / Igande eta jaiegunak: 11:30-13:30.

Noiz? Urriaren 17tik azaroaren 9ra.



Diseinu grafikoa
Inprimatze digitala
Offset inprimatzea
Bulegoko materiala
Papergintza

Iglesia, 2 • 20302 IRUN
T. 943 624 500 / Fax 943 631 721
imptolosa@euskalnet.net
www.imprentatolosa.com

LUIS TOLOSA
grafikagintza

